izenpe s.a.
ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA

# HARPIDEDUNAREN KONTRATUA EUSKADIKO OSASUN SISTEMARAKO ZIURTAPEN ZERBITZU DIGITALA

HARPIDEDUNAREN KONTRATU hau Euskadiko Osasun Sistemako aseguratuak edo aseguratuaren edo aseguratuen legezko ordezkaritza duenak, ziurtagiriaren azken erabiltzaile izango direnek eta harpidedun izendatuko ditugunek, eta IZENPE, S.A. enpresak (aurrerantzean, IZENPE), helbide soziala Gasteizko Mediterraneoaren hiribidea, 3 01010 eta A-01337260 zenbakiko IFK duenak, elkarrekin sinatutako kontratua da.

Harpidedunak ziurtagiria eskatu, onartu edo erabiltzeak esan nahi du HARPIDEDUNAREN KONTRATU honetako klausula guztiekin ados dagoela.

## KONTRATAZIOAREN BALDINTZA OROKORRAK

**LEHENA**.-KONTRATUAREN XEDEA

1.1.- HARPIDEDUNAREN KONTRATU honek (aurrerantzean, kontratua), IZENPEren eta harpidedunaren eskubideak eta betebeharrak arautzea du helburu. Eskubide horiek IZENPEk eskainitako Euskadiko Osasun Sistemarako Ziurtapen Zerbitzu Digitaletik eratorritakoak dira.

1.2.- Kontratu hau harpidedunak sinatzen duen egunean jarriko da indarrean edo, bestela, lehenago gertatuko balitz, harpidedunak gako pribatua erabiltzen duen unetik aurrera.
Harpidedunak gako pribatua gakoen edukitzaileak erabiltzen duenean erabiliko duela ulertuko da.

Aurrerantzean, harpideduna aipatzerakoan adierazitakoa harpidedunari eta/edo gakoen edukitzaileari aplikatuko zaie.

Harpideduntzat joko dira Euskadiko Osasun Sistemako aseguratuak.

Gakoen edukitzaile, berriz, aseguratuaren legezko ordezkaritza dutenak izango dira.

# CONTRATO DE SUSCRIPTOR SERVICIO DE CERTIFICACIÓN DIGITAL PARA EL SISTEMA SANITARIO DE EUSKADI

El presente CONTRATO DE SUSCRIPTOR es un contrato celebrado entre el asegurado del Sistema Sanitario de Euskadi o quien ostente la representación legal del asegurado o asegurados, como usuario(s) final(es) del certificado, denominado Suscriptor, y la mercantil IZENPE, S.A. (en adelante, IZENPE), con domicilio social en Avda. del Mediterráneo, 3, 01010 Vitoria-Gasteiz, con C.I.F. número A-01337260.

El hecho de que el Suscriptor solicite, acepte o utilice el certificado, significa que está de acuerdo con todas las cláusulas de este CONTRATO DE SUSCRIPTOR.

## CONDICIONES GENERALES DE CONTRATACIÓN

**PRIMERA**.- OBJETO DEL CONTRATO

1.1.- El presente CONTRATO DE SUSCRIPTOR (en adelante, Contrato), tiene por objeto regular los derechos y obligaciones de IZENPE y del Suscriptor, que se derivan del Servicio de Certificación Digital para el Sistema Sanitario de Euskadi prestado por IZENPE.

1.2.- El presente Contrato entra en vigor en la fecha de firma del mismo por el Suscriptor o, en su caso, si se produjera antes, con la utilización de la clave privada por el mismo.
Se entenderá que el suscriptor utiliza la clave privada cuando lo hace el Poseedor de Claves.

En adelante las referencias al Suscriptor, se entienden aplicables al Suscriptor y/o al Poseedor de Claves.

Tendrán la consideración de Suscriptores las personas aseguradas del Sistema Sanitario de Euskadi.

Serán poseedores de claves las personas

Horiek bakarrik izango dituzte sinadura digitalaren gakoak eta behar bezala baimenduta eta identifikatuta egongo dira ziurtagirian, beren izen-abizenen bidez.

físicas, que ostentan la representación legal del asegurado, que poseen de forma exclusiva las claves de firma digital y se encuentran debidamente autorizados para ello y debidamente identificados en el certificado mediante su nombre y apellidos.

1.3.- Zerbitzuaren deskribapena

1.3.- Descripción del servicio.

1.3.1.- IZENPEk harpidedunari Ziurtapen eta Gakoen Kudeaketako Zerbitzua eskainiko dio, horrek bere burua kautotu ahal izateko eta agiriak sinatu eta transakzioak egin ahal izateko, Euskadiko Osasun Sistemarekin dituen harremanetan, baita beste batzuekin dituenetan ere, horiekin ziurtapenen arloko hitzarmenak egin badira.

1.3.1.- IZENPE prestará al Suscriptor el Servicio de Certificación y Gestión de Claves, con el fin de que éste pueda autenticarse, así como firmar documentos y transacciones en las relaciones que mantenga con el Sistema Sanitario de Euskadi y en otros con los cuales se establezcan acuerdos en materia de certificación.

1.3.2.- IZENPEk harpidedunari Euskadiko Osasun Sistemako Aseguratuaren Ziurtagiria edo Euskadiko Osasun Sistemako Ordezkatutako Aseguratuaren Ziurtagiria entregatuko dio, txartel adimendunean edo homologatutako beste edozein euskarri tekniko baliokidetan, hori babesteko metodo egokiarekin, bai eta dagokion softwarea ere.

1.3.2.- IZENPE entregará al Suscriptor un Certificado de Asegurado del Sistema Sanitario de Euskadi o un Certificado de Asegurado Representado del Sistema Sanitario de Euskadi en tarjeta inteligente o cualquier otro soporte técnico equivalente homologado, con el debido método de protección de la misma, así como su software correspondiente.

**BIGARRENA**.- IZENPEren OSASUN TXARTEL ELEKTRONIKORAKO ZPDa eta IZENPEren ERAGIKETEN DOKUMENTAZIOA

**SEGUNDA**.- DPC PARA LA TARJETA SANITARIA ELECTRÓNICA Y DOCUMENTACIÓN DE OPERACIONES DE IZENPE

2.1.- Kontratu honen xede den IZENPEk eskainitako Euskadiko Osasun Sistemarako Ziurtapen Zerbitzu Digitalaren inguruko alderdi tekniko eta operatiboak Osasun Txartel Elektronikorako Ziurtapen Praktiken Deklarazioak (aurrerantzean, OTE-ZPD) eta haren ondorengo eguneratzeek bilduko dituzte, bai eta harpidedunari emandako dokumentazio osagarriak ere.

2.1.- El Servicio de Certificación Digital para el Sistema Sanitario de Euskadi ofrecido por IZENPE, objeto del presente Contrato, se encuentra regido técnica y operativamente por la Declaración de Prácticas de Certificación para la Tarjeta Sanitaria Electrónica (en adelante, DPC-TSE) y sus actualizaciones posteriores, así como por documentación complementaria suministrada al Suscriptor.

2.2.- OTE-ZPDa Interneten dago argitaratuta, www.izenpe.com helbidean, IZENPEren gordailuan. Horrezaz gain, posta elektronikoz ere lor daitezke, ondorengo helbidera eskatuz gero: info@izenpe.com. OTE-ZPDaren eguneratzeak IZENPEren gordailuan daude, Interneteko www.izenpe.com helbidean.

2.2.- La DPC-TSE se encuentra publicada en Internet en el Depósito de IZENPE en www.izenpe.com y se encuentra asimismo disponible a través de correo electrónico enviando una solicitud a la siguiente dirección: info@izenpe.com. Las actualizaciones de la DPC-TSE se encuentran disponibles en el Depósito de IZENPE en la siguiente dirección de Internet www.izenpe.com.

2.3.- OTE-ZPDa eta IZENPEren eragiketen dokumentazioa —-maiztasun jakin batez aldatzen dena— kontratu honi eransten zaizkio,

2.3.- La DPC-TSE y la documentación de

erreferentzia gisa. Harpidedunak OTE-ZPDaren azken bertsioa ezagutzen duela deklaratzen du eta bertsio horren alderdi juridikoak kontratu honetan osorik jasota daude. Era berean, harpidedunak OTE-ZPDan eta IZENPEk emandako gainerako dokumentazioan deskribatzen diren eskakizun tekniko eta operatiboak betetzeko konpromisoa hartzen du.

2.4.- Desadostasunen bat gertatuko balitz, kontratu honetan jasotako baldintzen esanahia OTE-ZPDan jasotakoari gailenduko zaio.

**HIRUGARRENA**.- ZIURTAGIRIEN DESKRIBAPENA

3.1.- *Euskadiko Osasun Sistemako Aseguratuaren Ziurtagiria*

Ziurtagiri aitortuaren legezko izaera duen sinadura elektronikoko ziurtagiria da, abenduaren 19ko 59/2003 Legearen, sinadura elektronikoari buruzkoaren, 8, 11, 12, 13, 18 eta 20. artikuluetan ezarritakoari jarraiki. Ziurtagiriak Euskadiko Osasun Sistemako aseguratu gisa identifikatzen du harpideduna. Ziurtagiri pertsonala da eta bertan aseguratua bera da ziurtagiriaren harpideduna eta gako pribatuaren edukitzailea, eta bere izenean eta bere burua ordezkatuz jarduten du berorrekin.

3.2.- *Euskadiko Osasun Sistemako Ordezkatutako Aseguratuaren Ziurtagiria*.

Ziurtagiri aitortuaren legezko izaera duen sinadura elektronikoko ziurtagiria da, abenduaren 19ko 59/2003 Legearen, sinadura elektronikoari buruzkoaren, 8, 11, 12, 13, 18 eta 20. artikuluetan ezarritakoari jarraiki. Ziurtagiri pertsonala da eta bertan harpideduna identifikatzen da Euskadiko Osasun Sistemako aseguratu gisa. Gakoen edukitzailea, aldiz, aseguratuaren legezko ordezkari den pertsona fisikoa izango da.

3.3.- *Jabetza intelektuala*

Harpidedunak aitortzen du IZENPE jaulkitzen dituen ziurtagiri, zehaztapen, txartel adimendun eta marka guztien jabea dela, hirugarrenen eskubideak ere kontuan hartuz.

operaciones de IZENPE, modificada periódicamente, se incorporan al presente Contrato por referencia. El Suscriptor declara tener conocimiento de la última versión de la DPC-TSE cuyos aspectos jurídicos se encuentran recogidos en su totalidad en el presente Contrato. Asimismo, el Suscriptor se compromete a cumplir con los requisitos técnicos y operativos descritos en la DPC-TSE y en la restante documentación suministrada por IZENPE.

2.4.- En el supuesto de discrepancia, el significado de los términos contenidos en el presente Contrato prevalecerá frente a lo establecido en la DPC-TSE.

**TERCERA**.- DESCRIPCIÓN DE LOS CERTIFICADOS

3.1.- *Certificado de Asegurado del Sistema Sanitario de Euskadi.*

Es un certificado de firma electrónica con la consideración legal de certificado reconocido, de acuerdo con lo establecido en los artículos 8, 11, 12, 13, 18 y 20 de la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica, que identifica al suscriptor como asegurado del Sistema Sanitario de Euskadi. Se trata de un certificado personal en el que el suscriptor del certificado y el poseedor de la clave privada es el propio asegurado, que actúa en su nombre y representación.

3.2.-*Certificado de Asegurado Representado del Sistema Sanitario de Euskadi.*

Es un certificado de firma electrónica con la consideración legal de certificado reconocido, de acuerdo con lo establecido en los artículos 8, 11, 12, 13, 18 y 20 de la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica. Se trata de un certificado personal que identifica al suscriptor como asegurado del Sistema Sanitario de Euskadi y al poseedor de claves como la persona física que ostenta la representación legal del asegurado.

3.3.- *Propiedad intelectual.*

El Suscriptor reconoce que IZENPE es el propietario de todos los Certificados que emita, así como de las especificaciones, tarjetas

3.4.- *Ziurtagirien iraupena*

Kontratu honen indarrez jaulkitako edo baimendutako ziurtagiriek gehienez ere 3 urteko iraupena izango dute, ziurtagiria jaulkitzen den egunetik hasita.

**LAUGARRENA**.- HARPIDEDUNAREN BETEBEHARRAK

4.1.- *Informazioaren egiazkotasuna*

4.1.1.- Ziurtagiriaren eskaeran eta ziurtagirian edozein baliabideren bidez sartutako informazio guztia egiazkoa, osoa eta eguneratua izateko ardura harpidedunarena da.

4.1.2.- Ziurtagiria jaulki ondoren harpidedunak ziurtagirian datu okerren bat hautemango balu, berehala IZENPEri jakinarazi beharko lioke, baita ziurtagiria jaulkitzeko baliozkotu zen informazioan aldaketaren bat gertatuko balitz ere.

4.2.- *Zaintzako betebeharrak*

4.2.1.- Harpidedunak honako hauek zaintzeko betebeharra bere gain hartzen du: identifikazioko zenbaki pertsonala, txartel adimenduna edo IZENPEk homologatutako beste edozein euskarri tekniko baliokide, gako pribatuak eta, hala badagokio, IZENPEk ematen dizkion zehaztapenak.

4.2.2.- Ziurtagiriaren gako pribatua galdu edo lapurtuz gero, edo harpidedunak gako pribatuak edozein arrazoirengatik fidagarritasuna galdu duela susmatzen badu, horren berri eman beharko dio IZENPEri berehala.

4.3.- *Ondo erabiltzeko betebeharrak*

4.3.1.- IZENPEk eskainitako Euskadiko Osasun Sistemarako Ziurtapen Zerbitzu Digitalak aukera eskainiko dio harpidedunari bere burua kautotzeko eta agiriak sinatu eta transakzioak egiteko, Euskadiko Osasun Sistemarekin dituen harremanetan, baita beste batzuekin dituenetan

inteligentes y marcas, sin perjuicio de los derechos de terceros.

3.4.- *Duración de los Certificados.*

Los Certificados emitidos o licenciados bajo el presente Contrato tienen un periodo máximo de validez de 3 años desde el día en que dicho Certificado sea emitido.

**CUARTA**.- OBLIGACIONES DEL SUSCRIPTOR

4.1.- *Veracidad de la información.*

4.1.1.- El Suscriptor se responsabiliza de que toda la información incluida por cualquier medio en la solicitud del Certificado y en el propio Certificado, es veraz, completa y está actualizada.

4.1.2.- El Suscriptor deberá informar inmediatamente a IZENPE de cualquier inexactitud en el Certificado detectada posteriormente a la emisión del Certificado, así como de los cambios que se produzcan en la información que fue validada para la emisión del mismo.

4.2.- *Obligaciones de custodia.*

4.2.1.- El Suscriptor asume el deber de custodia del Número de Identificación Personal, de la tarjeta inteligente o cualquier otro soporte técnico equivalente homologado por IZENPE, de las claves privadas y, en su caso, de las especificaciones IZENPE que le fueran suministradas.

4.2.2.- En el supuesto de pérdida o sustracción de la clave privada del Certificado, o en el supuesto de que el Suscriptor tuviese indicios de que la clave privada ha perdido fiabilidad por cualquier circunstancia, estará obligado a notificar inmediatamente a IZENPE esta circunstancia.

4.3.- *Obligaciones de uso correcto.*

4.3.1.- El Servicio de Certificación Digital para el Sistema Sanitario de Euskadi ofrecido por IZENPE, permite al Suscriptor autenticarse, así como firmar documentos y transacciones, en las relaciones que mantenga con el

ere, horiekin ziurtapenen arloko hitzarmenak egin badira.

4.3.2.- Harpidedunak konpromisoa hartzen du IZENPEk eskainitako Euskadiko Osasun Sistemarako Ziurtapen Zerbitzu Digitala, gako publikoa eta pribatua, txartel adimenduna, IZENPEK homologatutako beste edozein euskarri tekniko baliokide eta ziurtagiriak kontratu honetan, OTE-ZPDan eta IZENPEk harpidedunari ematen dizkion beste jarraibide, eskuliburu edo prozeduretan finkatutako baldintzetan adierazitakoari jarraiki erabiltzeko.

4.3.3.- Harpidedunak zenbait tresna kriptografiko erabiltzeko duen eskubideari eragin diezaioketen lege eta araudi guztiak bete beharko ditu.

4.3.4.- Harpidedunak ez du IZENPEk eskainitako Euskadiko Osasun Sistemarako Ziurtapen Zerbitzu Digitala monitorizatu, aldatu edo deskonpilatuko.

4.3.5.- Harpidedunak onartzen du gako pribatuaren bidez sortutako sinadura digitala erabiliz kautotutako komunikazio elektroniko guztiek behar bezala kautotutako idatzizko komunikazio baten legezko ondorio, balio eta indar lotesleak dituztela.

4.3.6.- Harpidedunak aitortzen du bere gako pribatuarekin sortutako sinadura digitala harpidedunaren sinadura elektronikoa dela.

4.3.7.- Harpidedunak aitortzen du sinadura digitalak sortzen dituenean, ziurtagiria onartu eta aktibatu egiten dela, baldin eta ziurtagiria iraungi, ezeztatu edo eten ez bada.

4.3.8.- Harpidedunak aitortzen du azken erabiltzailea dela, eta konpromisoa hartzen du ziurtagirietan jasotako gako publikoei dagozkien gako pribatuak ziurtagiriak sinatzeko ez erabiltzeko, jaulkitze-entitateren bat balitz bezala.

4.3.9. Harpidedunak konpromisoa hartzen du ziurtagiriaren indarraldia amaitu ondoren gako pribatua ez erabiltzeko.

4.4.- *Baliabide teknikoen zerbitzua eta entregatzea onartzea*

4.4.1.- Entrega- eta onarpen-orria sinatzean,

Sistema Sanitario de Euskadi y en otros con los cuales se establezcan acuerdos en materia de certificación.

4.3.2.- El Suscriptor se obliga a utilizar el Servicio de Certificación Digital para el Sistema Sanitario de Euskadi ofrecido por IZENPE, el par clave pública/clave privada, la tarjeta inteligente o cualquier otro soporte técnico equivalente homologado por IZENPE y los Certificados, de acuerdo con el presente Contrato, la DPC-TSE y cualesquiera otras instrucciones, manuales o procedimientos suministrados por IZENPE al Suscriptor.

4.3.3.- El Suscriptor deberá cumplir con cualquier ley y regulación que pueda afectar a su derecho a utilizar ciertas herramientas criptográficas.

4.3.4.- El Suscriptor no monitorizará, alterará o descompilará el Servicio de Certificación Digital para el Sistema Sanitario de Euskadi ofrecido por IZENPE.

4.3.5.- El Suscriptor acepta que todas las comunicaciones electrónicas autenticadas empleando la firma digital generada con la clave privada del mismo, tienen el mismo efecto legal, validez y fuerza vinculante que una comunicación escrita debidamente autenticada.

4.3.6.- El Suscriptor reconoce que la firma digital generada con su clave privada es la firma electrónica del Suscriptor.

4.3.7.- El Suscriptor reconoce que cuando genere firmas digitales, y en tanto en cuanto el Certificado no haya expirado ni haya sido suspendido o revocado, el Certificado habrá sido aceptado y se encontrará operativo.

4.3.8.- El Suscriptor reconoce que es un usuario final y se compromete a no emplear las claves privadas correspondientes a las claves públicas contenidas en los Certificados, con el propósito de firmar ningún Certificado, como si se tratase de una Entidad de Emisión.

4.3.9. El Suscriptor se compromete a dejar de emplear la clave privada transcurrido el periodo de validez del certificado.

4.4.- *Aceptación del Servicio y Entrega de Medios Técnicos.*

harpidedunak aitortzen du txartel adimenduna edo IZENPEk homologatutako beste edozein euskarri tekniko baliokide entregatu zaiola eta, hala badagokio, baita identifikazio Pertsonaleko Zenbakia ere, eta elementu horiek ondo funtzionatzen dutela.

4.4.2.- Harpidedunak, entrega- eta onarpen-orria sinatzen duenean, ziurtagiria onartzen du. Era berean, eskaera sinatzen duenean, harpideduna kontratu honen baldintzen menpe geratuko da.

4.5.- *Harpidedunaren gakoen edukitzaileak*

Euskadiko Osasun Sistemako Ordezkatutako Aseguratuaren Ziurtagiriaren kasuan, ziurtagiria jasotzen duen gakoen edukitzaileak dagokion entrega- eta onarpen-orriari jarraitu beharko dio, kontratu honek ezarritakoa betez.

**BOSGARRENA**.- <u>IZENPEREN BETEBEHARRAK</u>

5.1.- *Euskadiko Osasun Sistemarako Ziurtapen Zerbitzu Digitala eskaintzeari buruzkoak*

5.1.1.- IZENPEk zerbitzua zenbait baldintza tekniko eta operatibo betez eskaintzeko betebeharra du, OTE-ZPDan eta IZENPEren eragiketen dokumentazioan ezartzen denaren arabera. Betebehar horren barruan sartzen da identifikazio pertsonaleko zenbakia, gakoak, ziurtagiriak, txartel adimenduna edo IZENPEk homologatutako beste edozein euskarri tekniko baliokide eta haren softwarea nahiz zerbitzua emateko behar diren elementu tekniko guztiak entregatzea, baina ez da horretara bakarrik mugatzen.

5.1.2.- IZENPEk ziurtagiriaren ezeztapenaren berri emango dio harpidedunari.

5.1.3.- IZENPEk, harpidedunaren eskariaren ostean, ziurtagirien egoera jakinaraziko die informazio hori eskuratzeko behar bezalako baimena duten hirugarrenei.

5.1.4.- IZENPEk konpromisoa hartzen du harpidedunarekin ziurtagiriak unean-unean ezeztatu edo eteteko, OTE-ZPDaren eta kontratu honen arabera, bai eta harpidedunari IZENPEk jakiten duen eta jaulkitako ziurtagirien baliozkotasunari eta fidagarritasunari funtsean eragiten dien edozein egitateren berri emateko

4.4.1.- Con la firma de la Hoja de Entrega y Aceptación, el Suscriptor reconoce que se le ha hecho entrega de la tarjeta inteligente o cualquier otro soporte técnico equivalente homologado por IZENPE y, en su caso, del Número de Identificación Personal, y que estos elementos funcionan correctamente.

4.4.2.- El Suscriptor acepta, con la firma de la Hoja de Entrega y Aceptación, el Certificado. Asimismo, el Suscriptor quedará vinculado por los términos del presente contrato, con la firma de la Solicitud.

4.5.- *Poseedores de Claves del Suscriptor.*

En el caso de Certificados de Asegurado Representado del Sistema Sanitario de Euskadi, el poseedor de claves que recibe el certificado, en virtud del presente contrato, deberá atenerse a los términos de la Hoja de Entrega y Aceptación.

**QUINTA**.- <u>OBLIGACIONES DE IZENPE</u>

5.1.- *Relativas a la prestación del Servicio de Certificación Digital para el Sistema Sanitario de Euskadi.*

5.1.1.- IZENPE se obliga a la prestación del servicio en ciertas condiciones técnicas y operativas, según se establece en la DPC-TSE y la documentación de operaciones de IZENPE, incluyendo pero sin limitarse a la entrega del Número de Identificación Personal, las claves, los Certificados, la tarjeta inteligente o cualquier otro soporte técnico equivalente homologado por IZENPE y su software, así como todos aquellos elementos técnicos precisos para la prestación del Servicio.

5.1.2.- IZENPE notificará al Suscriptor, la revocación de los Certificados.

5.1.3.- IZENPE comunicará, previa solicitud del Suscriptor, el estado de los Certificados a terceros debidamente autorizados para acceder a dicha información.

5.1.4.- IZENPE se compromete con el Suscriptor a revocar o suspender puntualmente los Certificados conforme con la DPC-TSE y el presente Contrato y notificar al Suscriptor cualquier hecho conocido por IZENPE que afecte sustancialmente a la

ere. IZENPEk ziurtagirien ezeztapena argitaratuko du, ziurtagiria indargabetzea eragin duten kausen berri duen unean bertan, kontratuaren seigarren klausulan jasotakoarekin bat etorriz.

5.1.5.- IZENPEk erantzukizuneko aseguru egokia eta nahikoa izango du, abenduaren 19ko 59/2003 Legeak, sinadura elektronikoari buruzkoak, ezarritako legezko aurreikuspenekin bat etorriz.

5.2.- *IZENPEren berme mugatua*

5.2.1.- IZENPEk baldintza hauek bermatzen dizkio harpidedunari:

a) Ziurtagiriek informazio zuzena eta eguneratua dute jaulkitzen diren unean, eta informazio hori behar bezala egiaztatuta dago, abenduaren 19ko 59/2003 Legeak, sinadura elektronikoari buruzkoak, ezarritakoarekin bat etorriz.
b) Ziurtagiriek beren edukiari buruzko eskakizun guztiak betetzen dituzte, OTE-ZPDarekin bat etorriz.
c) Kontratu honetan aurkakorik ezartzen ez bada, IZENPEk konpromisoa hartzen du harpidedunarekin ziurtagiriak unean-unean ezeztatu edo eteteko, OTE-ZPDaren eta kontratu honen arabera, bai eta harpidedunari IZENPEk jakiten duen eta jaulkitako ziurtagirien baliozkotasunari eta fidagarritasunari funtsean eragiten dien edozein egitateren berri emateko ere.

5.2.2.- Beste klausula batzuetan berariaz jasotako alderdietan izan ezik, IZENPEk ez du bermatzen ziurtagirietan jasotako informazioaren edo IZENPEk edo bere izenean besteren batek bildutako, argitaratutako edo banatutako informazioren zehaztasuna, egiazkotasuna, fidagarritasuna, osotasuna, egokitasuna eta ziurtagiria sinatu, erabili edo egiaztatzeko unean egunera egotea.

5.2.3.- IZENPEk ez du softwarerik bermatzen.

**SEIGARRENA**.- <u>ZIURTAGIRIAK ETETEA, BERRAKTIBATZEA, EZEZTATZEA ETA BERRITZEA</u>

validez y a la fiabilidad de los Certificados emitidos. IZENPE publicará la revocación de los certificados desde el momento en que tenga conocimiento de las causas que originan su extinción, de acuerdo con lo previsto en la cláusula sexta del contrato.

5.1.5.- IZENPE dispondrá de un seguro de responsabilidad adecuado y suficiente, de acuerdo con las previsiones legalmente establecidas en la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.

5.2.- *Garantía limitada de IZENPE.*

5.2.1.- IZENPE garantiza al Suscriptor los siguientes extremos:

a) Los certificados contienen información correcta y actual en el momento de la emisión de los mismos, debidamente comprobada, de acuerdo con lo establecido en la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.
b) Los Certificados reúnen todos los requisitos relativos a su contenido conforme con la DPC-TSE.
c) A menos que se disponga lo contrario en el presente contrato, IZENPE se compromete con el Suscriptor a revocar o suspender puntualmente los Certificados conforme con la DPC-TSE y el presente Contrato y notificar al Suscriptor cualquier hecho conocido por IZENPE que afecte sustancialmente a la validez y a la fiabilidad de los Certificados emitidos.

5.2.2.- Excepto lo expresamente previsto en otras cláusulas, IZENPE no garantiza la exactitud, autenticidad, fiabilidad, totalidad, actualidad en el momento de la firma, del uso o de la verificación del certificado o idoneidad de cualquier información contenida en los Certificados o compilada, publicada, o distribuida por o en nombre de IZENPE.

5.2.3.- IZENPE no garantiza ningún software.

**SEXTA**.- <u>SUSPENSIÓN, REACTIVACIÓN, REVOCACIÓN Y RENOVACIÓN DE CERTIFICADOS</u>

6.1.- *Ziurtagiriak etetea*

6.1.1.- Harpidedunak ziurtagiriak eteteko eskatu ahal izango du, nahi duenean eta galdu egin badu edo lapurtu egiten badiote.

6.1.2.- Bere aldetik, IZENPEk ziurtagiriak aurkeztutako dokumentazioa aztertzen behar duen denboran eten ahal izango ditu, ziurtagiria indargabetzea eragin duen kausa badagoela egiaztatzeko.

6.2.- *Ziurtagiriak berraktibatzea*

Harpidedunak ziurtagiriak berraktibatzeko eskatu ahal izango du, eteteko eskaera egin zenetik hasi eta 15 egun naturaleko epean; epe hori igarotzen denean, ziurtagiriak ezeztatu egingo dira.

6.3.- *Ziurtagiriak ezeztatzea*

6.3.1.- Harpidedunak IZENPEri jaulki dituen ziurtagiriak ezeztatzeko eskatu ahal izango dio, ziurtagiriak iraungi aurreko edozein unetan.

6.3.2.- Eskaera hori IZENPEk kautotu behar du ziurtagiria ezeztatu aurretik eta, horretarako, IZENPEk honako informazio hau hartuko du kontuan:

a) Ezeztatzeko eskaeraren data,
b) harpidedunaren identitatea, eta
c) ezeztatzeko eskaera eragin zuten arrazoiak.

6.3.3.- Bere aldetik, IZENPEk harpidedunari jaulkitako ziurtagiriak ezeztatu egin ahal izango ditu honako egoera hauetan:

a) Ezeztatzeko eskaera sinatzaileak, berorrek ordezkatutako pertsona fisiko edo juridikoak, hirugarren baimendu batek edo pertsona juridikoko ziurtagiri elektroniko baten eskatzaile den pertsona fisikoak egiten badu.
b) Sinatzaileak edo ziurtapen-zerbitzuen eskaintzaileak sinadura sortzeko datuen inguruko sekretua urratu bada edo arriskuan badago, edo datu horiek behar ez bezala erabiltzen baditu hirugarren batek.
c) Ebazpen judizial edo administratiboren batek hala agintzen badu.
d) Sinatzailea hil bada edo berorren nortasun juridikoa iraungi bada; ordezkatua hil bada

6.1.- *Suspensión de los Certificados.*

6.1.1.- El Suscriptor podrá solicitar la suspensión de los Certificados en cualquier momento, y en cualquier caso, en los supuestos de pérdida o robo.

6.1.2.- Por su parte, IZENPE podrá suspender los Certificados durante el tiempo necesario para comprobar la documentación presentada para acreditar la existencia del hecho que origina la pérdida de vigencia del certificado.

6.2.- *Reactivación de los Certificados.*

El Suscriptor podrá solicitar la reactivación de los Certificados hasta 15 días naturales desde la solicitud de la suspensión de los mismos, transcurrido el cual se entenderán revocados.

6.3.- *Revocación de Certificados.*

6.3.1.- El Suscriptor podrá solicitar a IZENPE la revocación de los Certificados emitidos por éste en cualquier momento anterior a la expiración de los mismos.

6.3.2.- Dicha solicitud debe ser autenticada por IZENPE antes de proceder a la revocación, para lo cual, IZENPE tendrá en cuenta, a los efectos de la revocación, la siguiente información:

a) La fecha de solicitud de la revocación.
b) La identidad del Suscriptor.
c) La razón o razones que motivaron la petición de revocación.

6.3.3.- Por su parte, IZENPE podrá revocar los Certificados emitidos al Suscriptor en las siguientes circunstancias:

a) Cuando la revocación sea formulada por el firmante, la persona física o jurídica representada por éste, un tercero autorizado o la persona física solicitante de un certificado electrónico de persona jurídica.
b) Cuando se produzca la violación o puesta en peligro del secreto de los datos de creación de firma del firmante o del prestador de servicios de certificación o utilización indebida de dichos datos por un tercero.
c) Cuando lo ordene una resolución judicial o administrativa.

edo berorren nortasun juridikoa iraungi bada; sinatzaileari edo berorren ordezkatuari ezintasun partziala edo osoa gertatzen bazaio; ordezkaritza amaitzen bada; ordezkatutako pertsona juridikoa deuseztatzen bada; edo pertsona juridiko bati egindako ziurtagirietan islatutako sinadura sortzeko datuen zaintzaren edo erabileraren inguruko baldintzak aldatu badira.

e) IZENPE, S.Ak jarduera eteten badu, baldin eta, sinatzailearen aurretiko onespena dela medio, hark jaulkitako ziurtagiri elektronikoen kudeaketa ez badio transferitzen beste ziurtapen-zerbitzuen eskaintzaile bati.
f) Ziurtagiria lortzeko emandako datuak aldatzen badira edo ziurtagiri egiteko egiaztatutako baldintzak aldatu badira.
g) Ziurtagiria galtzen edo lapurtzen badute, berorren euskarrian gertatutako kalteak direla eta ezin bada erabili, edo ziurtagiriaren euskarria ziurtapen-politikan aurreikusi ez den beste euskarriren batera aldatu bada.
h) Ziurtagiria behar bezala erabiltzen ez badute gakoen edukitzaileak edo hirugarren batek.
i) Aldeetakoren batek dagozkion eginbeharrak betetzen ez baditu.
j) Ziurtagiria jaulkitzean akatsen bat gertatu bada, ezarritako prozedurari ez egokitzeagatik edo ziurtagiria jaulkitzeko prozesuan sortutako arazo teknikoengatik.
k) Sinadura sortzeko datuen konpromisotik kanpoko gorabeherak direla medio, Izenpe, S.Ak jaulkitako ziurtagirien fidagarritasuna eta sistemen segurtasuna arriskuan jartzen bada.
l) Izenpe, S.A.ren ziurtagiria ezeztatzen bada.
m) Jaulkitzerakoan akats teknikoak sortzen badira.

6.4.- *Ziurtagiriak berritzea*

Ziurtagiri bat ezeztatu edo iraungi egin delako berritu egin behar denean, beste ziurtagiri bat eskatu beharko da, OTE-ZPDan ezarritako ziurtagiriak jaulkitzeko prozesuari jarraiki.

d) Fallecimiento o extinción de la personalidad jurídica del firmante; fallecimiento o extinción de la personalidad jurídica del representado; incapacidad sobrevenida total o parcial, del firmante o de su representado; terminación de la representación; disolución de la persona jurídica representada o alteración de las condiciones de custodia o uso de los datos de creación de firma que estén reflejadas en los certificados expedidos a una persona jurídica.
e) Cuando cese en su actividad Izenpe, S.A. salvo que, previo consentimiento expreso del firmante, la gestión de los certificados electrónicos expedidos por aquél sean transferidos a otro prestador de servicios de certificación.
f) Cuando haya una alteración de los datos aportados para la obtención del certificado o modificación de las circunstancias verificadas para la expedición del certificado.
g) Cuando se produzca la pérdida, robo o se inutilice el certificado por daños en el soporte del certificado o en el caso de modificación del soporte a otro soporte no previsto en la Política de Certificación.
h) Cuando se realice una utilización indebida del certificado por el poseedor de clave o por un tercero.
i) Cuando alguna de las partes incumpla sus obligaciones.
j) Cuando se haya producido un error en la emisión del certificado debido a una falta de adecuación al procedimiento establecido o a problemas técnicos durante el proceso de emisión del certificado.
k) Cuando por circunstancias diferentes al compromiso de los datos de creación de firma, la seguridad de los sistemas y la fiabilidad de los certificados emitidos por Izenpe, S.A. pueda verse afectada.
l) Cuando sea revocado el certificado de Izenpe, S.A..
m) Cuando se produzcan fallos técnicos en la emisión.

6.4.- *Renovación de los Certificados*

Para renovar un Certificado, bien porque haya sido revocado o porque haya caducado, se deberá solicitar un nuevo certificado, siguiendo el proceso de emisión de certificados establecido en la DPC-TSE.

**ZAZPIGARRENA**.- ERANTZUKIZUNA

7.1.- *Harpidedunaren erantzukizuna*

7.1.1.- Harpideduna bere gako pribatuarekin sortutako sinadura digitala erabiliz kautotutako komunikazio elektroniko guztien arduraduna izango da, ziurtagiria IZENPEk eskainitako egiaztatze-zerbitzuen bidez behar bezala berretsia izan denean.

7.1.2.- Kontratu honetako 4.2.2. atalean ezarritako jakinarazpena egiten ez den bitartean, ziurtagiriak baimenik gabe eta/edo behar bezala ez erabiltzetik eratorritako erantzukizuna, harpidedunarena izango da beti.

7.2.- *IZENPEren erantzukizuna*

IZENPE kontratu honen arabera zabarkeriaz edo behar adinako zuzentasunez ez jokatzearen erantzulea izango da, kasu hauetan izan ezik:

a) IZENPE ez da izango ziurtagirietan jasotako informazioek eragiten dituzten kalteen erantzule, betiere horien edukiak kontratu hau eta OTE-ZPDa funtsean betetzen baditu.
b) IZENPE ez da izango ziurtagirien indarraldia iraungitzeak eragiten dituen kalteen erantzule, betiere kontratu honetan eta OTE-ZPDan jasotako argitalpen-betebeharrak betetzen baditu.
c) IZENPEri ezingo zaio erantzukizunik eskatu ziurtagirien, sinadura digitalen edo kontratu honetan eta OTE-ZPDan jasotako beste edozein eragiketa edo zerbitzuren erabilera, entregatzea, lizentzia, funtzionamendua edo funtzionamendurik eza dela-eta sortzen diren kalte hauengatik, aurreikusita egon ala ez: zuzenekoak nahiz zeharkakoak, bereziak, intzidentalak, sortutakoak, lortu gabeko irabaziak, datu-galerak eta zigor-kalteak.
d) IZENPEri ezingo zaio erantzukizunik eskatu harpidedunari edo fede oneko hirugarrenei ziurtagirian agertzen diren datuak zuzenak ez direlako sorrarazitako kalte-galerengatik, baldin eta datu horiek dokumentu publiko bidez kreditatu bazaizkio.
e) IZENPE ez da izango harpidedunari edo fede oneko hirugarrenei eragindako kalte-galeren erantzule, harpidedun izateak edo ziurtagirietan konfiantza duten hirugarren izateak berekin dakartzan betebeharrak ez

**SÉPTIMA**.- RESPONSABILIDAD

7.1.- *Responsabilidad del Suscriptor*

7.1.1.- El Suscriptor será responsable de todas las comunicaciones electrónicas autenticadas empleando una firma digital generada con su clave privada, cuando el Certificado haya sido válidamente confirmado a través de los servicios de verificación prestados por IZENPE.

7.1.2.- Mientras no se produzca la notificación establecida en el apartado 4.2.2 del presente contrato, la responsabilidad que pudiera derivarse del uso no autorizado y/o indebido de los Certificados, corresponderá, en todo caso, al Suscriptor.

7.2.- *Responsabilidad de IZENPE.*

IZENPE responderá por negligencia o falta de la debida diligencia según los términos del presente contrato, excepto en los siguientes supuestos:

a) IZENPE no será responsable por los daños causados por las informaciones contenidas en los certificados, siempre que el contenido de los mismos cumpla sustancialmente con el presente contrato y la DPC-TSE.
b) IZENPE no será responsable por los daños causados por la extinción de la eficacia de los certificados, siempre que cumpla sustancialmente con las obligaciones de publicación previstas en el presente contrato y la DPC-TSE.
c) IZENPE no será responsable de ningún daño directo e indirecto, especial, incidental, emergente, de cualquier lucro cesante, pérdida de datos, daños punitivos, fuesen o no previsibles, surgidos en relación con el uso, entrega, licencia, funcionamiento o no funcionamiento de los certificados, las firmas digitales o cualquier otra transacción o servicio ofrecido o contemplado en el presente contrato y la DPC-TSE en caso de uso indebido.
d) IZENPE no será responsable por los daños y perjuicios ocasionados al suscriptor o terceros de buena fe, por la inexactitud de los datos que consten en el certificado, si éstos le han sido acreditados mediante documento público.
e) IZENPE tampoco será responsable por los

betetzearen ondorioz sortutako kalteak direnean.

7.3.- *Kalterik ez eragiteari buruzko klausula*

Ziurtagiriak onartzen dituenean, harpidedunak IZENPEri kalterik ez eragiteko betebeharra bere gain hartzen du eta, hala badagokio, kalte-ordaina ordainduko dio IZENPEri kalteak, galerak, zorrak, gastu prozesalak edo era guztietako gastuak –ordainsari profesionalak barne– eragiten dizkion edozein ekintza edo ez-betetzerengatik, ziurtagiriak erabili edo argitaratzeak eragindakoak badira, eta honako hauen ondorioz sortu badira:

a) kontratu honetan jasotako baldintzak ez betetzearen ondorioz,
b) ziurtagiri digitalak baimenik gabeko pertsonekin komunikazio elektronikoak izateko erabiltzearen ondorioz,
c) harpidedunak faltsutasunez jardutearen edo errore faktikoa egitearen ondorioz,
d) IZENPE edo harpidedunaren ziurtagirian konfiantza duten hirugarren pertsonak engainatzeko asmoz edo zabarkeriaz funtsezko egitate bat ez egitearen ondorioz, eta
e) gako pribatuak zaintzeko betebeharra eta gako pribatuak galdu, ezagutarazi, aldatu edo oker erabiltzea saihesteko arrazoizkoak diren arretazko neurriak hartzeko betebeharra ez betetzearen ondorioz.

daños y perjuicios ocasionados al suscriptor o a terceros de buena fe, por el incumplimiento de los deberes inherentes a la condición de suscriptor o terceros que confían en los certificados

7.3.- *Cláusula de indemnidad.*

Mediante la aceptación de los Certificados, el Suscriptor se obliga a mantener indemne y, en su caso, a indemnizar a IZENPE de cualquier acto u omisión que provoque daños, pérdidas, deudas, gastos procesales o de cualquier tipo, incluyendo los honorarios profesionales, en los que IZENPE pueda incurrir, que sean causadas por la utilización o publicación de los Certificados, y que provenga:

a) del incumplimiento de los términos del presente contrato,
b) del uso de los Certificados Digitales en comunicaciones electrónicas con personas no autorizadas,
c) de la falsedad o el error fáctico cometido por el Suscriptor,
d) de toda omisión de un hecho fundamental en los Certificados realizada negligentemente o con la intención de engañar a IZENPE o a terceras personas que puedan confiar en el Certificado del Suscriptor, y
e) del incumplimiento del deber de custodia de las claves privadas y de tomar aquellas precauciones que sean razonables para prevenir la pérdida, revelación, alteración o uso no autorizado de las claves privadas.

**ZORTZIGARRENA-** DATU PERTSONALEN BABESA

8.1.- IZENPE abenduaren 13ko 15/1999 Legeak, Datu Pertsonalen Babesaren ingurukoak, eta horren garapenean aipatutako xedapenek eta abenduaren 19ko 59/2003 Legeak, sinadura elektronikoari buruzkoak, xedatutakoaren mendekoa izango da bere jardunerako beharrezkoak diren datu pertsonalak erabiltzeko garaian.

8.2.- Harpidedunak informazio pertsonala eman beharko dio IZENPEri, ziurtagiriak eta elementu osagarriak jaulkitzeko eta kudeatzeko xede bakarrarekin.
IZENPEk informazio horretan oinarrituko den

**OCTAVA**.- PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

8.1.-IZENPE en el tratamiento de los datos personales que precisa para el desarrollo de su actividad se sujeta a lo dispuesto en la Ley 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y a las disposiciones dictadas en su desarrollo y en la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.

8.2.- El Suscriptor deberá suministrar a IZENPE información personal, con la finalidad exclusiva de la emisión y gestión de los Certificados y los elementos accesorios.
IZENPE mantendrá con dicha información un

izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatua edukiko du, eta IZENPE izango da bere arduraduna.

fichero automatizado de datos de carácter personal cuyo responsable es IZENPE.

8.3.- IZENPEk datu horiek baimenik gabe aldatzea, galtzea, erabiltzea edo eskuratzea eragozteko behar diren neurriak hartuko ditu, eta une oro teknologiaren egoera hartuko du kontuan. Horretarako, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretua, izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien araudia onesten duena, beteko du.

8.3.- IZENPE adoptará las medidas necesarias para evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, habida cuenta en todo momento del estado de la tecnología, de acuerdo con lo previsto en el Real Decreto 994/1999, de 11 de junio, por el que se aprueba el reglamento de medidas de seguridad de los ficheros automatizados que contengan datos de carácter personal.

8.4.- Datu pertsonalen babesaren inguruko edozein arau-hausteren ondorioz sortzen diren galera edo kalte guztiei dagokienez, harpidedunak IZENPE defendatu, kalte-ordainak ordaindu eta erantzukizunetik libre utzi behar du.

8.4.- El Suscriptor debe defender, indemnizar y eximir a IZENPE de cualquier pérdida o daño que sea resultado de cualquier infracción en materia de protección de datos de carácter personal.

8.5.- Harpidedunak bere datu pertsonalak eskuratu, zuzendu eta ezeztatzeko eskubideak gauzatzeko eskatu ahal izango dio IZENPEri www.izenpe.com helbidean argitaratutako intimitate-politikan aurreikusten den bezala.

8.5.- El Suscriptor podrá solicitar a IZENPE el ejercicio de los derechos acceso, recificacion y cancelacion de sus datos personales en la forma prevista en la Politica de Intimidad publicada en www.izenpe.com.

8.6.- IZENPEk ezingo du jada jaulkitako ziurtagiri bat aldatu, bere datu pertsonalak zuzendu edo ezeztatzeko ziurtagiria ezeztatu egin behar baita.

Era berean, ezeztatutako ziurtagiriei dagozkien zuzendutako edo ezeztatutako datuak 15 urtez gordeko ditu IZENPEk, abenduaren 19ko 59/2003 Legean, sinadura elektronikoari buruzkoan, aurreikusi bezala.

8.6.- IZENPE no podrá modificar un certificado que ya ha sido emitido ya que para rectificar o cancelar cualquiera de sus datos de carácter personal es necesario revocar su certificado.

Asimismo, los datos rectificados o cancelados, relativos a los certificados revocados, serán mantenidos por IZENPE durante 15 años, tal como se prevé en la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.

**BEDERATZIGARRENA**.- Informazio konfidentziala zabaltzea

9.1.- IZENPEk ez du ziurtagiriei buruzko informazio konfidentzialik zabalduko eta ezingo zaio hori egiteko eskatu, honako hauek aldez aurretik berariazko eskaera egiten ez badute:

a) IZENPE informazio konfidentzial hori gordetzera behartzen duen pertsonak,
b) harpidedunak,
c) agindu judizial edo administratibo batek edo indarrean dagoen legeek jasotzen duten beste edozein aginduk.

**NOVENA**.- Divulgación de Información Confidencial

9.1.- IZENPE no divulgará ni podrá ser requerida para divulgar ninguna información confidencial referente a Certificados sin una solicitud específica previa que provenga de:

a) la persona respecto de la cual, IZENPE guarda un deber de mantener esta información confidencial,
b) el Suscriptor,
c) una orden judicial, administrativa o cualquier otra prevista en la legislación vigente.

9.2.- Hala eta guztiz ere, harpidedunak ziurtagiri-eskaeran emandako informazioaren atal bat bere ziurtagirietan eta ziurtagirien egoera egiaztatzeko mekanismoan sartzeko eskatzen du, eta aitortzen du informazio hori ez dela konfidentziala izango.

9.2.- No obstante, el Suscriptor solicita que cierta información proporcionada en la Solicitud de Certificados sea incluida en sus Certificados y en el mecanismo de comprobación del estado de los Certificados, y reconoce que dicha información no tendrá carácter de confidencial.

9.3.- Edonola ere den, harpidedunak eskatzen du bere ziurtagiriak ez argitaratzea IZENPEk.

9.3.- En todo caso, el Suscriptor solicita que sus Certificados no sean publicados por IZENPE.

**HAMARGARRENA**.- ARAU-HAUSTEAK ETA ERATORRITAKO BESTE KALTE BATZUK

**DÉCIMA**.- INFRACCIONES Y OTROS DAÑOS DERIVADOS

10.1.- Harpidedunak adierazten eta bermatzen du domeinu bat eta/edo beste izen edo izendapen-mota bat (eta ziurtagiri-eskaeretako gainerako informazioa) erabiltzeak eta IZENPEri bidaltzeak –-harpidedunaren ziurtagirian sar dezan–-, ez dituela inongo jurisdikzioko ezein pertsonaren eskubideak urratzen, marka erregistratu, zerbitzu-marka, izen komertzial edo jabetza intelektual edo industrialaren beste edozein eskubideri dagokienez. Horrez gain, adierazten eta bermatzen du ez duela domeinu eta izen bereizgarri horiek helburu ilegaletarako erabiltzeko asmorik; helburu ilegal horien barruan sartzen dira, inongo mugarik gabe, kontratu baten hauste engainagarria edo abantaila komertzialak lortzea, lehia desleiala, ohore-eskubidearen kaltetzea eta pertsona fisiko nahiz juridiko bat nahastea edo horri iruzurra eragitea.

10.1.- El Suscriptor manifiesta y garantiza que la remisión a IZENPE – para su inclusión en un Certificado del Suscriptor – y la utilización de un dominio y/u otro tipo de nombre o denominación, (y demás información de solicitud de los Certificados), no viola los derechos de ninguna persona en ninguna jurisdicción con respecto a sus marcas registradas, marcas de servicio, nombres comerciales, o cualquier otro derecho de propiedad intelectual o industrial, y que no pretenden utilizar el dominio y los nombres distintivos para ningún propósito ilegal, incluyendo, sin limitación, la infracción dolosa de un contrato o la obtención de posibles ventajas comerciales, la competencia desleal, la lesión del derecho al honor, y la confusión o engaño de una persona, tanto física como jurídica.

10.2.- Aipaturiko edozein arau-hausteren ondorioz sortzen diren galera edo kalte guztiei dagokienez, harpidedunak IZENPE defendatu, kalte-ordainak ordaindu eta erantzukizunetik libre utzi behar du.

10.2.- El Suscriptor debe defender, indemnizar y eximir de responsabilidad a IZENPE de cualquier pérdida o daño que sea resultado de cualquier infracción mencionada.

10.3.- Harpideduna da kontratu honen eta OTE-ZPDaren indarrez jaulkitako ziurtagirietan erabiltzeko komunikatzen duen informazioa legezkoa izatearen arduradun bakarra, informazio hori erabili edo ikus daitekeen edozein jurisdikziori dagokionez.

10.3.- El Suscriptor es el único responsable de la legalidad de la información que comunique para la utilización en los Certificados emitidos bajo el presente Contrato y la DPC-TSE, en cualquier jurisdicción en la que dicha información pueda utilizarse o visualizarse.

**HAMAIKAGARRENA**.- APLIKATZEN DEN LEGEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

**UNDÉCIMA**.- LEY APLICABLE Y JURISDICCIÓN COMPETENTE

11.1.- Kontratu honek lege espainiarrei eta, bereziki, abenduaren 19ko 59/2003 Legeari,

11.1.- El presente Contrato se regirá por las leyes españolas y, en especial, por la Ley

sinadura elektronikoari buruzkoari, jarraituko die.

11.2.- IZENPE kontsumoko arbitraje-sistemaren menpe dago, aplikagarri diren legeek ezarritako baldintzetan; izan ere, sistema hori herritarraren ziurtagirien harpidedunen kexak edo erreklamazioak bi alderdientzat era lotesle eta betearazlean ebazteko baliabidea da.
Horretarako, eskatzaileak edo harpidedunak sistema horri men egiten diola hartuko da kontuan, dagokion Kontsumoko Arbitraje Batzordearentzako arbitraje-eskaera formalizatzen duen unetik.
Herritarraren ziurtagiriei dagokienez auzitan erabaki beharreko beste edozein erreklamazio sortuko balitz, eta kontsumoko arbitraje-sistemaren menpe ez baldin badago, jurisdikzio eskudunaren menpe geratuko da.

11.3.- Jurisdikzio eskuduna une bakoitzean legeria prozesal espainiarrak agintzen duena izango da.

**HAMABIGARRENA**.- KONTRATUAREN ZATIGARRITASUNA

Kontratu honetako klausulak elkarrekiko independenteak dira eta, beraz, klausula bat baliogabetzat edo aplikaezintzat jotzen bada, kontratu honetako gainerako klausulek aplikagarri izaten jarraituko dute, aldeek horren aurkako akordiorik berariaz hartzen dutenean izan ezik.

59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.

11.2.- IZENPE está sometido al sistema arbitral de consumo en los términos previstos en la legislación aplicable como medio para atender y resolver con carácter vinculante y ejecutivo para ambas partes, las quejas o reclamaciones de los suscriptores de los certificados de ciudadanos.
A tales efectos se considerará que el solicitante o suscriptor se acoge a dicho sistema desde el momento de la formalización de la solicitud de arbitraje ante la Junta Arbitral de Consumo que corresponda.
Cualquier otra cuestión litigiosa que pudiera surgir para los certificados de ciudadanos no sometida al sistema arbitral de consumo, quedará sometida a la jurisdicción competente.

11.3.- La jurisdicción competente será aquella a la que en cada momento remita la legislación procesal española.

**DUODÉCIMA**.- DIVISIBILIDAD DEL CONTRATO

Las cláusulas del presente Contrato son independientes entre sí por lo que si cualquier cláusula es considerada inválida o inaplicable, el resto de cláusulas del presente Contrato seguirán resultando de aplicación, salvo acuerdo expreso en contrario de las partes.